

2019ko JARDUEREN TXOSTENA



DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Kultur Aniztasuna
Diversidad Cultural

AURKIBIDEA

1. SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZENTZIAZIOA

Nazioarteko egunak

- ♦ Arraza diskriminazioa ezabatzeko nazioarteko eguna. Martxoak 21 Agenda
- ♦ Gizaliburutegia
- ♦ Ijito Herriaren nazioarteko eguna. Apirilak 8
- ♦ Haurren egun unibertsala. Azaroak 20

Formakuntza

ZURRUMURRUEN AURKAKO FORMAZIOA

- ♦ Abegi etxeko langileei zuzenduta
- ♦ Partaidetzako langileei zuzenduta
- ♦ Udaltzaingoari zuzenduta
- ♦ Herritarrei zuzenduta
- ♦ Sentsibilizazio Kanpaina Donostiako Jaietan

Hizketaldiak/Conversatorios

Feminismoa eta arrazakeria

Migrazio Krisia edo Europako Krisia?

Asilo eta Muga eskubidea

Kultur artekotasun ikuspegia, Proiektu sozialen kudeaketan nola txertatu

- ♦ Tokiko entitate eta Eragile taldeei zuzenduta

2. BIZIKIDETZA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

- ♦ Sukaldanitzak
- ♦ Kultura arteko bizikidetza ikastetxean "Ongi etorri eskolara"
- ♦ Emakumeen gune interkulturala
- ♦ "Empalabramiento" Tailerra
- ♦ "Hau Egia da " proiektua

3. SAREETAN PARTE HARTZEA

- Kultur aniztasuneko eragileen sarea.
- "ZAS" zurrumurruen aurkako sarea.
- RECI Kulturen arteko hirien sarea.
- ICC Intercultural Citis

4. DIRU LAGUNTZAK

- ♦ Lehiaketa bidezko Diru-laguntzak Ikerketa proiektua
- ♦ Zuzenezko Diru-laguntzak Nominatiboa

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Arraza diskriminazioa ezabatzeko nazioarteko eguna

▪ Martxoak 21

Donostiako Udalak, hiriko hainbat eragile eta elkarterekin batera, jarduera-programa bateratu bat osatu dute Arrazakeriaren eta Xenofobiaren aurkako egunaren inguruan.

Martxoaren 12tik 29ra bitartean hainbat ekintza burutu dira: proiektzioak, muralak, solasaldiak, Atzerritartasun araudiaren inguruko informazio saioa.

Horretaz gain, igandean "arrazakeriaren aurkako martxa bat" egin zen Trintxerpeko azokatik boulesbarreko kioskoraino

Beste aldetik departamentuak azken urtetan bezala, Giza Liburutegiaren saio berezi bat, San Telmoko liburutegian antolatu du.

Jarduera-programan parte hartzen dute: Donostiako Udaleko Kultur Aniztasuna Bulegoa, Donostia Kultura, Fundación Secretariado Gitano, San Telmo Museoa, Sos Arrazakeriak, Bagera Euskaltzaleen Elkarte "Ongi Etorri Eskolara", Zuhazti Eskola Publikoa, Amara Berri Eskola Publikoa, Maria Reina Eskola, Euskadiko GGKEn Koordinakundea eta Medicus Mundi.

ARRAZAKERIAREN AURKAKO ZURE ESLOGAND HAUTATU

Atzerritartasun araudiaren inguruko informazio saioak
Информационная беседа о правовых нормах об иностранцах
关于移民法规的信息讨论
Information Session about Legislation on Foreign Nationals

Jornada informativa sobre la normativa de extranjería
- حديثاً اعلامي لقرارات الهجرة -
Sessions d'information sur la normative affectant les étrangers
Conferință informativă pe tema legislației privind străinii

2019

Martxoak 12 March	Maiatzak 21 May
Errotzeak eta baimenen berritzeak Settlement and renewals	Herritartasuna Citizenship
GROS Okendo KE Nafarroako Hiribidea 7	INTXAURRONDO Intxaurren KE Felix Gabilondo plaza 1

Asteartea - Tuesday 18:30 - 20:00

Las sesiones se dirigen a personas extranjeras y a nacionales que mantengan vínculos (de tipo familiar, laboral, etc.) con personas extranjeras y requieran información en materia de extranjería

Aldez aurretik izena eman behar da:
(izen-abizenak eta telefonoa)
kulturaniztasuna@donostia.eus / 943.481774

Sarrera doan

2019

Mars 12 Marzo	Mai 21 Mayo
Arraigo y renovaciones de permisos Enregistrement et renouvellements	Cómo adquirir la nacionalidad Acquisición de la nacionalidad
GROS CC. Okendo Avda. Navarra, 7	INTXAURRONDO C.C. Intxaurren Plaza Felix Gabilondo, 1

Martes - Mardi 18:30 - 20:00

Las sesiones se dirigen a personas extranjeras y a nacionales que mantengan vínculos (de tipo familiar, laboral, etc.) con personas extranjeras y requieran información en materia de extranjería

Se requiere inscripción previa en:
(nombre, apellidos y teléfono)
kulturaniztasuna@donostia.eus / 943.481774

Entrada gratuita

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Giza Liburutegia 2019:

Elkarrizketa gurutzatuak kulturartekotasuna bultzatzeko

Xenofobia eta Arrazakeriaren Kontrako Nazioarteko egunaren harira, Donostiako Udaleko Kultur Aniztasunaren Bulegoak, hainbat elkarteekin batera, martxoaren 26an, San Telmo Liburutegian, Giza Liburutegia izeneko ekimena burutu du. Kultura desberdinekin lotutako bost pertsona liburu bihurtu dira, haien istorioak eta bizipenak partekatu ahal izateko.

Aurten ere San Telmo museoan antolatu da, eta bost gunetan oinarritutako dinamika batean garatu da. Gune bakoitzaren ardura, jatorri eta kultura anitzeko elkarte batek, hartu du, eta hizlariak kultura jakin bati buruzko istorio edo bizipenak azaldu dizkiete parte hartzaileei. Beste aldetik istorio hauek, bulegoan ere idatziz jasota geratu dira.

Honako talde eta elkarteek hartu dute parte aurtengo edizioan: , Asoc. Inter. 5 estrellas, Jatorkin elkarte, "Ongi Etorri Eskolara", Ukraina-euskadi

Ekimenean, hogeitabost lagun parte hartu dute eta modu onean baloratu dute jarduera, esterotipoen aurka eta zurrumurruen aurkako jarduera, positibotzat jo dute.

GIZA LIBURUTEGIA / BIBLIOTECA HUMANA

Pertsona bakoitza liburu bat da
Cada persona es un libro

Etor zaitez kultura eta bizipen desberdinak ezagutzera!
¡Ven a compartir y conocer diferentes vivencias y culturas!

LIBURUAK: Emakume askea eta borrokalaria naiz, Jauregiaren Hormak, "Holodomor" Gosele Izugarria, Benelako Ukrainara afe naiz?, Ikasteko aukera
LIBROS: Soy una mujer guerrera y libre, Los Muros del Palacio, "Holodomor" Gran hambruna, ¿Soy realmente Ucraniana?, La oportunidad de aprender

Ordua | Hora: 17:30
Lekua | Lugar: San Telmo Museoa (Liburutegia)
Hizkuntza | Idioma: Gaztelera

MARTXOAK 26
26 DE MARZO

Jatorri desberdineko parte hartzen duten elkarteak / Asociaciones que toman parte:
Jatorkin Al-nahda, "Ongi etorri eskolara", Asociación Ucrania-euskadi eta Unión Cinco estrellas asociación intercultural

Antolatzaileak | Organiza:
DONOSTIA SAN SEBASTIAN
KULTUR ARTEKOTASUNA
Donostia 2019

Laguntzaileak | Colaboran:
55 STM
DONOSTIA SAN SEBASTIAN
donostia kultura

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Ijito Herriaren nazioarteko eguna

Apirilak 8



1971ko apirilaren 8an, Londresen egin zen Ijitoen/erromanien lehen Mundu Biltzarra, eta gailur garrantzitsu honetatik ofizialdu zituzten ijito herriaren bandera ofiziala (berdea eta urdina, gurdi baten gurpil gorria erdian duela) eta ereserkia, nazien bikitmak izandako ijitoen oroimenez sortua.

Ospakizun honekin bat egiteko, gaur eguardian udaletxeko osoko bilkuren aretoan, Donostiako alkateak, Eneko Goiak, Udalbatzako ordezkariekin harrera egin die; Agifugi, Cáritas, Kamelamos Adiquerar, Romi Bidean eta Fundación Secretariado Gitano elkarteetako kideei.

Ekitaldian, adostutako adierazpena irakurri dute eta “djelem djelem” ijito herriaren ereserkia abestu dute gitarraren laguntzaz.

Eneko Goiak adierazi du: “bazterkeria defendatzen duten egungo zenbait jarrerak atzerakada itzela suposatzen dute. Gizarte berean denok gure tokia izan dezagun bizikidetzatza aldarrikatu nahi dugu: elkarrekin bizitzen, konpartitzen, elkarri ezagutzen, elkarrekin egoten eta etorkizunean ere elkarrekin egoten jarraitzea, orain bezala”

Amaieran, udaleku eta elkarteetako ordezkariak nautikora abiatu dira, bertan “Ibairaren Zeremonia” egin da, lore-hostoak uretara bota dira eta kandelak piztu dira arbasoen izenean, origarri gisa.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Haurren Egun Unibertsala

Azaroak 21

Kultur aniztasuna eta Giza Eskubideen Sailak Mestiza elkartearekin elkarlanean "Haurren Egun Unibertsala" ospatzeko jaia antolatu dute, Loiolako kultur etxean, 4/6 urte bitarteko haurrentzat.

Azaroaren 21ean, osteguna, Haur Jaia antolatu da, eta bertan, aniztasuna eta kulturen arteko harremana izan dituzte ardatz.

Honako hauek hartu dute parte;

Ekitaldiaren aurkezlea, Monica Gracia.

Ipuin Kontalaria euskaraz, Klara Atxukarro Goñi "Itsasoa bete arrain" .

Ipuin Kontalaria gazteleraz, Ana Molina "Qué le pasa a mi cabello" Ipuia kontatu du.

Ipuin Kontalaria Ingeleses, Ana Molina " Brown Bear,
Brown Bear, what do you see?


Parte hartzaileek jolasak eta abestiak hiru hizkuntzatan egiteko akera izan dute, eta Aniztasunaren murala egin dute, Mónica Luna Arriola, zuzendaritzapean.

Festa alaitzeko "Musika Naiz" entzuteko eta dantzan aritzeko aukera izan dute, Tómbola eta "Sweet Lulu" gozotegiko goxoak dastatzeko.

.Ekitaldiaren ardatzak, Kulturaren arteko harremanak eta bizikidetza bultzatzea izan da eta Aniztasuna, balorean jartzea.



HEH30 URTE
HAURREN ESKUBIDEEI
BURUZKO HITZARMENA



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Haurren Egun Unibertsala

Azaroak 20



Azaroaren 20an Haurren Egun Unibertsala dela eta, Donostiako udalak, Kultur aniztasunaren eta Giza Eskubideen atalaren bitartez, ikastetxeetan ekimen bat antolatu du. Honen bitartez giza eskubideen aldeko hausnarketa eta Haurren eskubideen aldeko Manifestua ezagutzera eman nahi izan da. Programa hau, DBHko lehenengo zikloko 12 eta 14 urte bitarteko, nerabeei zuzendu zaie.

“Dar- Dar gizarte ekimenezko kooperatibak”, Nerabeei zuzendutako proiektu bat, eratu du. Bakarrizketa antzeztuaren eta ikus entzunezkoen bidez. “ **Mundua, ispilua eta ni** ” izeneko ikuskizunaren emanaldia antzeztu da, eta bertan gerrateek sorturiko errefuxiatuen egoera larria, haurrak jasaten duten biolentzia eta abar...laburbilduz, munduko leku eta garai desberdinetan ematen diren Giza eskubideen urraketak landu dira.

Programa honetan ikastetxe hauek parte hartu dute; Altzako Ikastetxea, Herri Ametsa ikastola, eta Mary War ikastetxea. DBHko lehenengo zikloko nerabeei zuzendua izan da. Bertan 17 saio egin dira, eta 400 lagun inguru parte hartu dute

Ikastetxeen aldetik jaso ditugun balorazioak, oso positiboak izan dira.

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

“Zurrumuruen Aurkako Formazio Saioak”

Estereotipotik Xenofobiara: Oinarrizko formakuntza

Zurrumuruen Aurkako Estrategia, etorkin, errefuxiatu eta oro har, kultur aniztasunaren aurkako estereotipo negatibo edota aurreiritziek sortutako ondorioak indargabetzeko dinamika da.

Ikastaroaren helburuak hauek izan dira:

Bizikidetza ostopatzen duten zurrumurruak eta Estereotipoak identifikatu eta aztertu. Tresnak eta ezagutzak lortu, zurrumuru hauei, aurre egiteko

Donostiako Abegi etxeko langileei zuzenduta

Formakuntza saioa: Aieteko Jauregian eman da

Noiz: apirilaren 4ean

Ordutegia: 8:30 – 11:30

Eta bertan 16 langile inguru parte hartu dute.

•Formazioa eman duen pertsona:

.- Raquel Moreno (de Xarxa AntiRumors Barcelona).
Formakuntza honetan, 16 langile parte hartu dute.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Donostiako Udaltzaingoa zuzendutako formakuntza

1.-"Zurrumuruen aurkako formazio saiok" Atestatuak

Formatzailea : Mikel Mazkieran (Berdin Sarea)


Formakuntza hau atestatuak jasotzen dituzten udaltzaingoei zuzendua izan da.

Formakuntzan landu diren gaiak hauek izan dira:

- .- Donostia, Hiri anitza: Bertan bizi diren kultur desberdinen ezagutza
- .- Arrazakeria, estereotipoak eta Aurreitsiak: Arrazakeriaren katea
- .- Gorrotozko delituak eta administrazio zigorrak
- .- Udaltzaingoen jarrera gorrotozko delituen aurrean.
- .- Formakuntza Morlanseko eraikuntzan izan da, 2 orduko iraupena izan du eta bertan 10 lagun parte hartu dute.

2.-" Zurrumuruen aurkako formazio saiok"

Etorkinei buruzko zurrumurru eta estereotipoak indentifikatu, aztertu eta hauei aurre egiteko ezagutzak eta tresnak eskuratu. Gorroto delituen aurrean poliziaren erantzunak



Non: Morlans Pasealekua 1

Datak: Azaroak 25 eta abenduak 2

Iraupena: 9:30- 14.00

Formatzaileak: Xabier Aierdi (soziologoa)

Agustin Unzurrunzaga (SOS Arrazakeria elkarteko kidea)

Mosso de squadra

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Formakuntza

Partaidetzako langileei zuzenduta

“Zurrunmurruei aurkako formakuntza”: Aurreiritzi, estereotipo eta zurrunmurruei kudeatzeko formakuntza

Noiz: Apirilak 4

Non: Easo eraikuntzan

Orduak: 12:30- 15:00

Formatzailea: .- Raquel Moreno izan da (soziologa eta parte-hartzearen gizarte espezialista)

Formakuntzan 10 lagun parte hartu dute.

Guztira Abegi etxean eta Partaidetzan eman diren formakuntzen gastua guztira.

Guztira..... 325.00€

Donostiako Herritarrei zuzenduta

“Zurrunmurruei aurkako oinarritzko ikastaroa”: Etorkinei buruzko zurrunmuru eta estereotipoak identifikatu
Eta tresnak eskuratu hauei aurre egiteko
Ondoko formazio egitasmoak, besteak beste, zurrunmurruei aurka lanean arituko den pertsona ezbedinez osatutako Donostiako agenteen sarea sortzea du helburu.

Noiz: Azaroak 4, 11 eta 18

Non: Egiako Kultur etxean

Orduak: 17:00 – 20:00

Formatzaileak: Raquel Moreno, Xarxa Antirumors Barcelona

Agustin Unzurraga, Gipuzkoako SOS Arrazakeria elkartearen kidea

Xabier Aierdi, Soziologoa

SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Sentsibilizazio kanpaina Donostiako Jaietan

Kultur Aniztasuna eta Berdintasuna sailak
SOS arrazakeriarekin elkarlanean,
sentsibilizazio kanpaina bat aurrera eramán dute,
Donostiako jaietan " Ez Indarkeria matxistari, ez arrazistari"

Zurrumurru matxista eta arrazistei aurre egiten laguntzeko triptiko batzuk egin dira gaiari buruzko Informazioarekin, eta udako jaietan horretarako prestatuko pertsonak triptikoak, gazteen artean banatutut dituzte.

Hizketaldiak // Conversatorios

Kultur Aniztasunaren bulegoak, SOS arrazakeria
eta ZAS! Zurrumuen aurkako sarearekin elkarlanean,
bi Hizketaldi Hauek antolatu ditugu

Feminismoa eta Arrazakeria

Abenduak 2, Emakumeen etxean

.-Irantzu Varela, Kazetari feminista

.-Maya Amrane, Testuinguru islamiarretako

Berdintasunaren aldeko mugimenduetan aditua

Migrazio Krisia edo Europako Krisia?

Asilo eta muga eskubidea

Abenduak 18, Museo San Telmon

.- Patricia Bárcena García, CEAR-Euskadi elkartearen zuzendaria

.- Iker Barbero, UPV-EHU. Administrazio zuzenbidea,
Konstituzio Zuzenbidea eta Zuzenbidearen
Filosofia altaleko irakasle agregatua.



SENTSIBILIZAZIOA ETA KONTZIENTZIAZIOA

Formakuntza

Donostian diharduten tokiko erakundeetako langile tekniko eta boluntarioei zuzendua.

"Kulturen arteko ikuspegia gizarte-proiektuen kudeaketan sartzea"

Noiz: Irailaren 26an, urriaren 3an eta 10ean

Non: Donostiako Udaletxean, Ulia aretoan

Orduak: 16:30 – 20:30 (12 ordu)

Formatzailea: Matiz elkarte

Formakuntza honetan, 21 lagun parte hartu dute.



BIZIKIDETZA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

Sukaldanitzak ekainak 8

“Sukaldanitzak”, kultur eta gastronomia aniztasuna elkartzeko asmoz, 2012. urtean Olatu Talka jaialdiaren baitan sortu zen ekimena da. 2015. urtean Donostiako Udaleko Kultur Aniztasunaren bulegoak hartu zuen ekimen hau antolatzeko testigua eta harrezkero, udaberriro ekimen honen edizio berri bat antolatzen dugu.

Ekimen honetan Donostiako elkarte gastronomikoetan, Sukaldanitzak Lantegiak antolatzen dira, eta Gastronomiaren bidez kultur elkar ezagutzea sustatzen du, hala, hainbat jatorrizko pertsonak elkar topatzeko guneak sortuz.

Aurten, Donostiako, ekainaren 8an, bederatzi Elkarte Gastronomikoetan, tailerrak eman ziren eta bakoitzean, tokian tokiko ohiko errezetak prestatu ziren, jatorri bakoitzeko sukaldari baten eskutik. Ondoren bertara inguratu zirenak, (aldez aurretik, izena eman zuten hiritarrak, elkarteetako bazkideak..) aukera izan zuten bazkarian parte hartzeko.



BIZIKIDETZA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

Sukaldanitzak



Aurten eman diren tailerrak hauexek izan dira:

Asiako gastronomia	-----	Txirain elkarte / Asoc. Tibetana Atisha
Honduras eta Boliviako gastronomia	-----	-Union Artesana elkarte / Asoc. Intercultural 5 estrellas,
Errumaniako gastronomia	-----	Centro Burgales elkarte / Asoc. Decebal
Kolonbiako gastronomia	-----	Zubimusu elkarte / Asoc. Emigrados sin fronteras
Txileko gastronomia	-----	Kañojetan elkarte / Asoc. Esperanza Latina
Mexikoko gastronomia	-----	Casa Galicia / Asoc. Intercultural Mestiza
Marokoko gastronomia	-----	Amaiak bat elkarte / Asoc. Jatorkin Al-Nahda
Honduraseko gastronomia	-----	Arrano elkar / " Ongi etorri eskolara "
Ukrainako gastronomia	-----	Loiolatarra elkarte / Asoc. Ucraina-Euskadi

Kultur Aniztasun bulegotik horrelako ekimenak bultzatzea dugu helburu, kulturarteko elkarbizitza sustatuz, gure hirian, elkarrekin bizi diren askotario kulturak elkartzeko, ezagutzeko eta elkar-aitortzeko guneak eskaintzen dituztelako

Ekimenean 270 pertsona inguru parte hartu zuten.

BIZIKIDETZA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

"HAU EGIA DA"

"Hau egia da" izena jarri zaio Egia auzoan gauzatzen ari den proiektu berri bati, auzoko bizitzan parte hartzen duten hainbat erakunde eta elkarteren parte-hartzearekin.

Hauek dira parte hartzen ari diren erakundeak eta elkarteak:

Emaus, "Ongi etorri eskolara", SOS. Arrazakeria, Egia bizirik, Dar-Dar gizarte ekimenezko kooperativa, Bagera donostiako euskalzaleen elkarte, Tabakalerako Hezkuntza atala eta Kultur Aniztasuneko bulegoa.

Proiektuaren helburua auzoan bizikidetza hobetzea eta bultzatzea da, ikuspegi Intekulturaletik



Proiektua bultzatzen hasteko, hainbat bilera antolatu dira, eta horietan testu bat osatu da, parte-hartzaileen artean adostuz egin nahi den diagnostikoari eman nahi zaion esanahiarekin; definizioa, helburua, laginak nola egin...

Diagnosi hori egiteko Egiako auzoan, bi pertsona kontratatzea erabaki da.

BIZIKIDETZA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

Kultura arteko Bizikidetza Eskola Komunitatean "Ongi etorri eskolara"

"Ongi etorri eskolara", kultur artekotasunean ikastetxeetan, lantzen duen proiektu bat da. Aurten Donostiako 6 Ikastetxeetan; Aitor ikastola, Intxaurren ikastola, Jakintza ikastola, Zuhaizti, Amara Berri eta Maria Reina ikastetxeetan programa hau aurrera eramaten da

Programa honek, gelan eta ikastetxean, kultura artekotasunaren ikuspuntua lantzen du. Eskola komunitatea, eskola osatzen duten kultura guztiak, balioztatzearen garrantziaz, sentsibilizatuz. Aldi berean, kultura guzti hauek euskarara eta euskal kulturara gertura daitezela lan eginez.

Proiektu honek, eskola komunitatean arlo guztietan dauka eragina:

- .-Alde batetik, Irakasleriarentzat eta Gurasoentzako sentsibilizazio tailerrak ematen dira. Bertaratzea altua izan da eta balorazio positiboa egin dute.
- .- Kulturarteko Ikerketak egiten dira.
- .-Harrera Protokolo bat diseinatzen da, eskolako komunitate osoarekin egindako prozesu parte hartzaile baten bitartez, eskolara egokitutako eta beste herrialde batetik datorren familia datorrenean martxan jartzeko.
- .-"Familia laguna" Programa aurrera eramaten da, aurten 180 famili inguru parte hartu dute



BIZIKIDETZA ETA HERRITARREN PARTE HARTZEA

Kultura arteko Bizikidetza Eskola Komunitatean
"Ongi etorri eskolara"

- .- Gelako Jarduerak egiten dira ikastetxe bakoitzean Jatorri desberdinetako gurasoen parte-hartzearekin, eskola osatzen duten kultura desberdinak balioztatzeko eta gelan jatorri desberdinetako familien partehartzea sustatzeko helbururarekin, geletan jarduera desberdinak egin dira;
- Eskolako Jarduerak; Munduko jolasak, Intxaur-saltsa Inauteriak, Neguko festak " Arimen gaua", Munduko Azokak...familiak geletara hurbiltzen dira
- .- Eremu komunitarioan; parte hartzen dute Arrazakeriaren aurkako egunean, Olatu talkan, Euskaraldian, Korrikan, Martxoan 8an, Sweet Pintxoa, Sukaldanitza 2019, Parketarrak, Amalgama, Bagera.. talde bezala jarduerak antolatzen dituzte.
- .- Museo San Telmorekin elkarlanean familia lagunen osatzen duten familiekin programan parte hartu dute, aurtan sei bisita gidatuak antolatu dira.

Kurtsoari amaiera emateko, Kultur aniztasunaren Bulegoak, ikasturtean zehar egindako lana eskertu nahi izan die, Donostiako udaletxean eskertza ekitaldi bat antolatu ondoren, Aquariumera bisita bat egitera gonbidatu zaie.



Zatozte jolasaren bidez kultura desberdinetan ospatzen diren inauteriak ezagutzera!

Zer? Jolasa familiar + txokolatada.
Noiz? Otsailaren 28an, 16:45etan.
Non? Goiko donutsean edo areto nagusian, eguraldiaren arabera.


Descubrid cómo se celebran los carnavales de diferentes culturas mediante el juego.

¿Qué? Juego en familia y chocolatada.
¿Cuándo? El 28 de febrero, a las 16:45.
¿Dónde? En el Donuts de arriba o el "areto nagusia", dependiendo del tiempo.

**INTXAUR-SALTSA
INAUTERIAKI!**



Guztira....71.820,98€



Jabetze taldeak

EMAKUMEEN GUNE INTERKULTURALA

Gune honetan beste emakume batzuekin, esperientziak konpartitu dituzte eta aukera eman die beste gai desberdinei buruz ikasteko. Aurten bereziki gorputza dantzaren bidez eta adimena meditazioaren bidez landu dituzte eta horrek lagundu die erlaxatzen eta alaiatasuna berreskuratzen eta ondorioz beraien buruarekin eta besteekin gustora sentitzen.

Taldean irteerak egin dituzte, baita ere parte hartu dute antolatu diren beste ekintza batzuetan; Giza liburutegian, Pasaia tailer gastronomikoan, Museo San telmora bisita gidatua egin dute...

Emakume migratzaileentzat udalerriri buruzko baliabide eta informaziorako sarrera ate bihurtzen da Emakumeen etxea, bertan parte hartzen duten gainerako emakumeekin eta programatutako aktibitateekin zubi bat ezartzen du.

Beste aldetik beste ekimenak ere aurrera eramanez, bizipenak partekatu, errekurtsioak eskeini krisie aurre egiteko, emakume etxearen zerbitzuei buruzko aholkularitza.....

Saioko bost (5) lagunek parte hartu dute, eta beraien balorazioa ona eta gune aldekoa izan da.

Guztira...8.855€

"EMPALABRAMIENTO"

TAILERRA

Programaren helburu nagusia da gaztelania ikasten duten bitartean, emakumeek beren eskubide eta ahalmenen kontzientzia indibiduala hartzea, baliabideak eskuratzea, eraginean irabaztea eta jendartearen parte izatea eskubide osoko herritar gisa eta baldintza-berdintasunean.

Aurten tailer bat antolatu da, urtarriletik martxora eta Tailer hau, 11 saiotan, banatu da, bakoitza bi ordukoak. Saio hauetan 10 emakume parte hartu dute. Beste aldetik ere irteera desberdinak egin dituzte; Museo San Telmora, Liburutegira, Kultur etxera....

Tailer hauetan parte hartu duten pertsonen aldetik balorazioa positiboa izan da, baina ezin izan dugu oraingo tailerrarekin jarraitu, kontutan izan da pertsona hauetako batzuk CEAR eta Gurutze programa batean barne daudela eta beraien jarduerak tailer honekin ezin izan dutela bat egin, oraingo tailerra bertan bera uztea erabaki da



Guztira.....1.349,09

SAREETAN PARTE HARTZEA

Kultur Aniztasuneko Agenteen Udal Sarea

Elkarriketa gunen honetan, elkarren berri ematen diote Kultur Aniztasunaren Bulegoak, atzeritarrei, errefuxiatuei eta kultura guztietako jendeari harrera egiteko eta gizarteratzen laguntzeko lanean diharduten udalerriko elkarteek.

.- Otsailaren 26an gai hauek ikusi dira, Udalak, ikasturte barruan, egindako jardueri eta hurrengo hilabetetan egingo direnei eta bereziki Martxoaren 21eko (Arrazakeriaren aurkako eguna) ekintzen agendarako ekimeneetaz hitz egin da, baita ere ICC ekiazko bisitatatzen berri eman zen.

.- Maiatzaren 14an gai hauek ikusi dira:

Aurreko bileran landutako gaien errepaso bat egin da, eta zer fasetan dauden azaldu.

Atalaren dirulaguntzen egoeraren berri eman da

Aurreikusitako jardueri buruzko informazioa eman da

Jakinarazi da dagoeneko itzuli dutela Europako Kontseiluak 2018ko abenduaren 12ko eta 13ko bisitaren ondoren egin zen txostena.

Webguneko atala hobetu behar dela adierazi da.

Beste aldetik elkarteak ekarpenak egin dituzte:

Beraien aldetik proposatu dute zer garrantzitsua den elkarteek elkar ezagutzea. Proposatu dute jarduera bateratuak egitea. Erakusketa bat antolatzea eta inmigrazioaren kontaketa positibo bat egitea. Atalaren plan gidaririk ez izatea ere aipatu da

.- Azaroak 5ean

Aurtengo azken bilera izan da, bertan hitz egin diren gaiak hauexek izan dira:

2019ko diru laguntzen berri eman

Martxoak 21, Aniztasunaren Astea

Kulturarteko Plan Estrategikoa

Fundación Secretariado gitano Aurkezpena

Ekarpenak eta Galderak egiteko denbora

SAREETAN PARTE HARTZEA

ZAS! Zurrumurruen Aurkako Sarea

Gizarte eragileen eta erakundeen sare bat da, gizartea eraldatzeko estrategia bat aurrera daramana, giza eskubideen, kulturartekotasunaren eta arrazismoaren aurkakoaren alde, ikuspegia oinarritzat hartuta. Honela egituratua dago: idazkaritza teknikoa, lan batzordeak eta aldizkako osoko bilkurak. Erabakiak osoko bilkuran hartzen dira, sareko kideek ematen duten botoaren arabera.

Sarearen ohiko zeregina da zurrumurruen aurkako eragileak sortzea eta euskal gizartean ohikoen diren diskurtso negatibo eta xenofoboak kontra egiteko narrazio multzo bat sortzea, 2019an, ohiko jarduera horiez gain, beste hauek ere egin ditu:

- Ausnarketa prozesua
- Komunikariorako eta administraziorako tekniko bat, kontratatu da .
- Herriz herriko ZAS! Hitzaldi zikloa proposatu du.

Donostian aurten Bi hizketaldi eta zurrumurruen aurkako formakuntzak antolatu dira,

web.www.zurrumurrurikez.eus y www.antirumores.eus

SAREETAN PARTE HARTZEA

RECI-Kulturarteko Hirien Sarea

RECI estatu mailako sarea da, Intercultural Cities programaren ekimenaz sortua. Sare honen helburuetako bat da esperientziak partekatzea eta aniztasuna kudeatzeko moduak ezagutaraztea, kulturarteko ikuspegia txertatuz. Izan ere, jatorri eta kultura askotariko pertsonen arteko ezagutza ahalbideratzea du helburu; beldurrak alde batera utzi, eta ondorioz diskriminazioa ezabatzea zergatia edozein dela ere, eta aniztasunaren balio positiboa goraipatzea.

Madrid.- RECI- 2019ko Apirilaren 10,11. lan saioa

Lekua: Kaixaforum

Besteak beste hauek izan dira landu diren gaiak:

- .- Hiri berrien aurkezpena
- .- Kultur artekotasunaren komunikazioa/ Zurrumurruen zirkulazioa
- .- RECI-ICC / 2019-2020 Agenda-lana

Madrid.- RECI- 2019ko Irailaren 30 eta Urriak 1en

.-Irailaren 30

Ordutegia: 18:30 – 20:00

Gaia: Diversity Advantage. Sari banaketa

.-Urriak 1

Lekua:Fuenlambrada

Ordutegia: 9:30 – 17:30

Gaia: III encuentro de ciudades Antirumores

Barcelona.- 27 de Noviembre, Santa Coloma de Gramenet.

Ordutegia: 9etatik 18.00etara

Gaiak:

- .- Harrera
- .- Kulturartekotasuna komunikatzea
- .- Interakzioa
- .- Komunikazioa eta identitatea
- .- Santo Colomako esperientziari buruzko informazioa

Hiru saio hauetan, Departamentuko teknikari batek, parte hartu du.

SAREETAN PARTE HARTZEA

ICC. Intercultural Cities

Donostia, 2011. urteaz geroztik, Europako Kontseiluko Kulturen arteko hirien sare eta programako kidea, eta egun, beste 130 hirik parte hartzen dute bertan. Programa honek hiriak laguntzen ditu haien kulturarteko estrategiak garatzen, aniztasunaren kudeaketa eta migratzaile integrazioa bideratuz.

2019. urtean zehar Europako Batzordearen ICC programaren barruan;

Index Ebaluaketa galdetegiak bidali ditu eta gure Sailak parte hartu du, galdetegi hauei erantzunez.

Eta beste aldetik Koordinazio bilera batzuk antolatu ditu, Turinen (Italia) eta Odessan (Ukraina)

Bilera hauetan gure departamentuak ez du parte hartu, baina bertan zer egin den informazioa jaso dugu.



ICCek iazko urtean 2018an bisita bat egin zuen Donostia, ikusteko nola lantzen zen Interkulturalitatea bertan eta aurrean jaso dugu beraien proposamen txostena.

DIRU-LAGUNTZAK

Kultur Aniztasuna, Elkar Ezagutza eta Aitortza Lehiaketa bidezko diru- laguntzak

Kultur Aniztasunaren bulegoak guztira **56.800 euro** banatu ditu, irabazi asmorik gabeko 25 erakunderen artean. Erakunde horiek, 29 proiektu aurkeztu dituzte, kultura aniztasunaren eta elkar ezagutzaren eta aitortzaren alde.

Zenbateko hori lortutako puntuazioaren arabera banatu da aurkeztutako 29 proiektuen artean.

Diru-laguntzen helburua da, jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen artean elkar ezagutza eta aitortza bultzatzeko lanean diharduten gizarte eragileek bideratutako ekimenei eta proiektuei laguntzea.

Diruz lagundutako proiektuen asmoa da kultur aniztasuna, gizarte kohesioa eta elkarbizitza baketsua hedatzeko, sentsibilizatzeko, aintzat hartzeko eta defendatzeko jarduerak aurrera eramatea.

.Ikerketa proiektua Aurten ikerketa proiekturako, proiektu bakarra aurkeztu dute

Elkarrekin Koop. Elkar. Txikiari ..**3.200€**

"Buenas Prácticas en el Intervención Socio-Educativo en Donostia" Ikerketa proiekturako, jaso du.

Zuzeneko diru-laguntzak

Diru laguntza zuzena 2 elkarteei banatu zaie, 4 proiektu finantziazteko.

Gipuzkoako SOS Arrazakeriari,.. **15.000€**, Donostian hiru jarduera aurrera eramateko:

- .-Errefuxiatuekin talde mentoría
- .-Urretxindorra mentoría, baztertze egoeran dauden eta migratzaileak diren nerabeentzako
- .-Etorkinen eta errefuxiatuen heriotza dokumentatuen inguruko erakusketa, "Europa Gotorlekura"

Diru-laguntza nominatiboa

Kamelamos Adiquerar elkarteari;..**25.000€**

- .- "Donostiako Kante Flamenkoaren XVIII" Ekimena finantziazteko